

Pilota ♦ Jose Javier Tabernaren iritziz, «nahikoa pilota badago Labrit frontoirako»

Jokatzekoak bai, baina...

Nagorek «pilota gehiago» nahi zuen Tabernaren kontra aritzeko

Enekoitz Telleria / Donostia

NAFARROAKO Pilota Federazioak emandako baimenaren ostean, Altiko eta Asegarceko bi pilotari nafar bildu ziren atzo Iruñean, Labriten, Euskal Herriko Buruz Buruko Txapelketan aritzeko pilotak aukeratzeko: Jorge Nagore eta Jose Javier Taberna.

Fernando Tapia azkoitia-rrak otarrean jarritako piloten artean, 104,2 eta 104,1 gramoko bi pilota aukeratu zituen Jorge Nagorek, eta 105,3 eta 104,4 gramoko beste bi Jose Javier Tabernak. Gustura gelditu zen egindako aukerarekin atzelari lesakarra, ez, ordea Jorge Nagore. Aukeran jarritakoen artean zegoena baino «pilota gehiago» nahi zuela esan zuen Irurtzungo aurrelariak. Kandido Elizalde botileroak berretsi egin zuen bere pilotariak esandakoa: «Oso gustuko pilotak ez zaizkigu ego-kitu, baina nik uste jokatzeko pilotak direla. Pilota gehixea-go nahi genuen, baina ez zegoen eta ez dago ezer egite-rik».

Jose Javier Tabernari «normala» iruditu zitzaion Jorge Nagorek pilota gehiago eskatzea. «Jorgeren sakea aprobe-txatu nahi dute. Nire ustez, hala ere, pilota nahikoa badago frontoi honetarako. Pilota zakarrak dira, gainera, eta nahiz eta asko irten ez, engainatu egiten dute. Pilotak azpitik anitz ibiltzen dira



JOSEBA OLALDE

Jorge Nagore ez zen gustura gelditu aukeratutako pilotekin.

eta kostako zaigu mugitzea», esan zuen Lesakako atzelariak.

Nagoreren sakea aipatu zuen atzo Tabernak behin baino gehiagotan, sakean dagoelako, haren esanetan, partiduen gakoak: «Nire aukerak sakearen arabera daude. Sakea nola altxatzen dudana, horren arabera daude nire aukerak. Hagitz zaila

izango da. Hagitz sake indartsua du eta bastante tanto egingen dizkit. Sakearekin, gainera, pilota dominatuta hartuko du, baina sakeak dezente altxatzen badituzte, aukeraren bat izanen dudala uste dut».

Atzo, bestalde, Balmasedan ere pilota aukeraketa egin zen. Etzi jokatu dute bertan Barriolak eta Pascua-

gaurko partiduen**DEPORTIVO. 17:00**

• Zeberio-Leunda / Goitia-Ibarra • **Euskal Herriko txapelketako finalerdia (desenpatea):** Daniel-Garrido / Iriondo-Rekalde • Urkia-Juan Pablo / Insausti-Beldarrain.

GALARRETA. 16:00

• Agirresarobe-J. Etxeberria / Bereziartua-Amenabar • Ezkurra-Urretabizkaia II.a / Altuna II.a-Eizagirre • Matxin-Iriarte / Elizalde-Aizpuru • Lezea-Zandio / Bitoria-Mendizabal.

biharko partiduen**DURANGO. 22:30 (ETB1)**

• **Ibilaldiaren aldeko jaialdia:** Eugi-Zezeaga / Goñi II.a-Elkoro • Berasaluze VII.a-Milikua / Badiola III.a-Almandoz.

SESTAO. 19:00

• **Sestaoko lau t'erdiko torneo:** Haritz / Gonzalez • Etxaniz-Santi / Esain-Lasa.

lek Euskal Herriko bigarren mailako buruz buruko finalerdia. Abel Barriolak 104,9 eta 104,8 gramoko pilotak aukeratu zituen. Iñigo Pascualek, berriz, 103,7 eta 103,1 gramokoak. Txapelketako partiduraren ostean, Balmasedako Torneoako finala jokatu dute Berasaluze VIII.a-Belokik eta Alustiza-Errastik.

Txirrindularitza ♦

110 kilometroko ihesaldiaren ostean, Bruno Boscardinentzat Setmanako etapa

Boterok jarraitzen du lider, eta Pantanik minutu bat galdu du

Efe / Hospitalet de Llobregat

SWISS POST taldeko Bruno Boscardin beteranoak irabazi zuen atzo Castello de Ampurias eta L'Hospitalet de Llobregat herrien artean jokatu zen Setmana Catalanako 3. etapa. 176 kilometrokoa zen atzoko etapa, eta horietatik 110 ihes eginda, bakarrik, egin zituen Boscardin suitzarrak. Botero liderraren tropela lau minutu baino gehiagora iritsi zen Erik Zabel alemaniarra buru zuela, eta Marco Pantanik, berriz, minutu bat galdu zuen helmugan liderrarekiko —azkeneko 10 kilometroetan sartuta zeudela jausi egin zen italiarra—. Euria egin zuen etapak iraun zuen bitartean eta eroriko asko izan ziren. Euskaltel-Euskadiko Joseba Beloki, esaterako, erietxera eraman zuten klabikulan kolpe handia zuelako. Marco Pantanik, berriz, ez du arazorik izango lasterketan jarraitzeko.

Aurreko eguneko etapa gogorraren ostean, lasaia izan zen atzokoa. 60. kilometroan egin zuen ihes Bruno Boscardinek eta zortzi minutuko abantaila ere izan zuen 108.ean. Kelmé eta Mercatone tropelaren buruan jarri zirenean hasi zen abantaila hori jaisten, baina uste baino astiroago, hala ere. Sei minutuko abantailarekin sartu zen Boscardin L'Hospitaleten, eta lau minutukoarekin helmugan.

Etapa gogorra gaur

L'Hospitalet de Llobregat eta Cerdanyola herrien artean korrituko da gaur laugarren etapa eta, biharko erlojupekoaren atarian, erabakigarria izan daiteke. 166 kilometro ditu eta hiru mendate: Montserrat eta d'Etenalles lehen mailakoak, eta Tibidabo bigarren mailakoa. Helmugatik 22 kilometro-ra azken hori.

txokoan**Daniel-Garrido eta Iriondo-Rekalde pala txapelketako finalaren bila**

Euskal Herriko Pala Txapelketako finala jokatzeko azken aukera dute gaur Daniel-Garridok eta Iriondo-Rekaldek. Partidu bana irabazi dute finalerdietan. Iriondo-Rekaldek lehenengo (41-45), eta Daniel-Garrido errioxarrek bigarren (45-26). Desenpateko partidua da gaurkoa. Irabazleek Urkia eta Torreren kontra neurtu beharko dituzte indarrak finalean, horiek desenpatearen beharrik gabe

Insausti eta Ibarra txapelketatik kanpora utzi zituzten. Larunbatean bertan jokatu da finala Bilbon, Deportivo. Ohi baino lehenago, 16:15etan, hasiko da partidua eta ETB1ek zuzenean emango du.

Koteto Ezkurra eta Garikoitz Altuna aurrez aurre Galarretan

Aurreko koadroetan ez da saltsarik faltako gaur Hernanin, Koteto Ezkurra eta Garikoitz Altuna nor baino nor ariko dira-eta Galarretan. Urretabizkaia II.a izan-

go du Ezkurrak lagun atzeko koadroetan, eta Jon Eizagire zarauztarra Amezketako aurrelari gazteak. Altunak eta Eizagirrek bikote handia egiten dute, baina Ezkurra tartean denean...

Lau t'erdi barruko torneo antolatu du Aspek Sestaon

Bihar hasiko da Sestaoko Las Llanas frontoian Aspe enpresak bere koadroko aurrelari gazteekin antolatu duen lau t'erdi barruko torneo. Haritzek eta Gonzalezek ekingo diote txapelketari, eta irabazleak Atxaren

kontra jokatu dute finalerdia. Badiola III.ak Berasaluze VII.aren kontra jokatu du apirilaren 9an, eta irabazleak Berraondoren kontra jokatu dute finalerdietan. Apirilaren 30ean jokatu da finala.

Berezkoen buruz buruko xapelgoko bi partida gaur

Baionako San Andres trinketea, Berezkoen Buruz Buruko Xapelgoko bi partida jokatu dira gaur (15:30). Bigarren itzuliko norgehiagokak dira: Jauregi-Lopetegi, eta Fontan-Agerre.